

ZENBAT BURU

Andoni Segundo

ERREPORTAJEA

Kazetari elgoibartar
rak EITBn

UDALETXETIK

Alkatearen auke-
raketa

BERBETAN

Xabier Elizburu
apaiz ordenatu
berria

KULTURA

Ongarriren aire
libreko zinea

BARREN

1999ko uztailaren 9a
VII. urtea - 286. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Xabier Elizburu, apaiza:
**“Kristau izatea bizitzari
aurre egiteko modu bat da”**

“Jaungoikua bakarra izan eta bera nahikua” (Esaera zaharra)

Estazio taberna

JATETXEA



Berriz irekita

- Eguneroko menuak
- Asteburuko menuak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Banketeak
- Urtebetetzeak
- Despedidak

*Tokia gordetzeko
aurrez deitu*

San Inazio, 9 Tel: 943 74 34 14

ZEZEN-BIDE AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*%10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*



San Frantzisko, 43-1. – Tel: 943 74 27 20 – ELGOIBAR ■ Ego-gain, 2 behea (sarrera S. Andres ibilbidetik) – Tel: 943 20 34 45 – EIBAR



ANDONI SEGUNDO

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzeko dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

Hitz potoloak

Gai eta ezagutza arlo guztietan badaude entzutearekin edo eta irakurtzearekin bakarrik beren garrantzia islatzen duten hitzak. Askotan, eztabaidak zuzentzen dituzten kontzeptuak dira eta sarritan kontraesanak agertzen dira.

Drogomenpekotasunaren gaia ez da salbuespena, eta nahikoa da droga, legalizazioa, trafikantea, etab. aipatzea, bat-batean kontrako iritziak sortzeko.

Drogak berak esanahi desberdinak hartzen ditu aztertzen den ikuspuntuaren arabera. Nire ustez, ikuspegi orokorretik eta aniztasunetik ekin behar zaio, eta drogen kontsumoa giza-fenomenoa den heinean, berari buruz hitz eginez indar gehiegi xahutzen dugulakoan nago. Bestalde, askotan kontsumoaren eta eskari-eskaintzaren zergatiak baztertu egiten ditugu. Orduan, drogomenpekotasunaren kontzeptua eta bere kontrako borroka baldintzatuta egon liteke.

Amaitu berri den ikasturtean, 12-13 urteko ikasleekin "Drogarik gabe bizitzeko erronka" lemapean drogomenpekotasunaren prebentzio-rako programa burutu dugu. Helburuak oso zehatzak ziren, ondo definituak eta zegozkion adinari egokituak, orokorrean programa positibotzat har zitekeen. Baina izenburuko bi hitz horiek, "Drogarik gabe" hitzek alegia, nahi gabe agian, ezkutuko mezua adierazten zuten, hori posible izango balitz bezala. Kultura eta zibilizazio guztietan drogak egon dira, badaude eta egongo dira. Hau dela-eta, ez litzateke hobeto izango programa horrek "Drogekin bizitzeko erronka" izenburua izatea?

Hausnarketa hau drogomenpekotasun

fenomenoa interpretatzeko ereduie ere aplikadakieke. Izan ere, orain arte arazoari aurre egiteko eredu asko jarri dira martxan, baina emaitza eskasak jaso dituztela. Dena dela, ez dira nahastu behar ereduak eta zientziek (Psikologia, Medikuntza, Soziologia...) egiten dituzten aportazioak.

Drogak, legalak eta ilegalak direla dioen lege errepresiboaren ereduak interpretazio partziala eta ez-objetiboa ematen du, beti ere interes ekonomikoetan eta politikoetan oinarrituz. Gainera, porrot egin du bide horrek eta arazoak jarraitzen du, nahiz eta gartzelak beteta egon, hori bai, kontsumitzailez beteta. Narkotrafikanteak, berriz, kalean ikus ditzakegun bitartean. Horretaz gain, eredu horrek polizia, epaile, banku jabe, enpresario, politiko eta abarrengan ustelkeria sortzen du.

Hori dela-eta, narkotrafiko eta diru-zuriketaren saren aurka borroka egiteak merezi du. Hartara, borrokaren helburu nagusia ondokoa litzateke: drogomenpekotasunik gabe, pertsona libreki drogadun gizartean bizitzen jakitea.

Bestalde, medikuntza ereduak, osasunaren kontzepzio klasikoan oinarrituta, ez du asko lagundu, droga ez baita birus bat edo gaixotasun bat.

Horregatik, nire egiten dut psiko-sozio-kulturala deitzen den interpretazio ereduak. Jarrerak eta gizarte aldaketak aldarrikatzea eskatzen du, beti ere pertsona, gizarte eta kultura zehatz batean oinarrituta.

Agian, hasierako hitz potoloak betirako trukatu beharko genituzke, eta proposamen gisa ondorengo hauek, askoz umilagoak, aipatuko nituzke: normalizazioa, elkartasuna, prebentzioa...

Barrak, Birkak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegia, Asier Orbea

PUBLIZITATEA Maitane Cid

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AZALEKO ESALDIA Gotzon Garateren liburitik

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko


Jaurlearitzako Kultura

Sailak eta Foru

Aldundiak diruz

lagundutako

aldizkarria.



Caritasen oharra

BARREneko 282. alean, euskaltzale batek Caritasekoekin zeukan haserrea adierazten zuen, berak jasotako diptikoa gaztelaniaz zegoelako. Hori dela-eta, Parrokiako Caritasekook zera esan nahi diogu: berari eta elgoibartar guztiei generalean Caritasek banatzen dizkien gauza guztiak bi hizkuntzetan egoten dira. Egun horretan, Donostiatik paperak iritsi zirenean, euskarazkoak gaztelaniazkoak baino gutxiago zirela ohartu ginen, baina kanpaina garrantzitsua zenez, banatzea erabaki genuen. Era berean, Donostiako arduradunei berriz horrela ez bidaltzeko eskatu genien, guri ere gure hizkuntza inporta zaigulako. Une hau aprobetxatu nahi dugu edonori adierazteko, gure laguntzaren beharr, badauka guregana lasai etortzeko, guk ez baitugu inor 'txakurraren salara' bidaltzen, gure laguntza denentzat delako. Besterik gabe, hainbat laguntza jasotzen dugulako, eskerrak emanez agurtzen gara.

Elgoibarko Caritas

Gezurrak, epaiketak eta autopistak

Ekainaren 30ean, Donostiako Entzutegian Elgoibarko hiru gazte epaitu zituzten koakzioa eta aginteari erresistentzia akusaziopean, duela urtebete Eibar-Gasteiz autopistaren aurka egindako protesta bat medio. Hau dela-eta, zenbait gauza azaldu nahi ditugu:

Eibar-Gasteiz autopistari ez. Gure protestak, alperrikako diru xahutzea darraren autopista honek, lehendik ere nahiko txikitua dagoen Deba bailarako ingurugiroari egingo dion konpon ezinezko kaltea salatu nahi zuen. Garapen eredu txikitzaile honen beste eraso bat da, bailarako ingurunearen eta biztanlearen kontura interes pribatuen onurarako (bankoak, konstruktorak...). Horregatik aukeratu genuen *Kutxako* sukurtsal bat, *Europistaseko* akzionista delako hain zuzen.

Biolentziarik gabeko ekintza zuzena. *Kutxako* itxialdia irainik eta erresistentziarik gabeko ekintza paketsu eta ekologista izan zen. Kateaturik geunden, lurrean jarrita, atxiloketaren zain. Hala eta guztiz, Ertzainek iraindu eta egurtu egin gintuzten, bai han eta baita komisaldegian ere (porra kolpeak, ostikadak, belarrondokoak, derrigorrezko biluztea). Agintearen gehiegikeria eta gorroto erakustaldi horren aurrean, sorpresa! fiskalak Ertzaintzaren ekintza "disdiratsutat" jo, eta gu akusatu gaitu ostikadak jotzeagatik. Oso profesionala! Aginte politiko-ekonomikoaren mertzenario izatea ez da ETBko "Ertzainak" telesaileko zipaio jatorrek sinestarazi nahi diguten bezain lanbide errespetagarria. Esperientziarengatik dakigu hori.

Non da justizia? Tratu txarrak direla-eta, kereila aurkeztu dugu, eta horrekin batera atxiloketaren orduan grabatutako zinta bat, lekuko bat eta medikua-ren partea. Baina Eibarko epaile batek ez du delitirik ikusi nahi izan, eta kasua artxibatzea erabaki du. Noski, errekurtsioa aurkeztu dugu erabaki horren aurka. Demokrazia zikin hipokrita honetan, sistemaren biolentzia ezkutatu egiten da eta bakea, beraiena, benetan hausten duena, injustiziak salatzea da.

Besterik gabe, borroka aurrera darrai.

Elgoibarko Gazte Asanblada

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.



GALDERAK

◆ Herritar batek jakin nahi du **ea Santa Ana kaleko gara-jeetara sartzeko ranpak noiz jarriko dituzten berriz**. Izan ere, kalea asfaltatu zutenean kendu zituzten ranpa hauek.

Hirigintza Sailera jo dugu erantzun bila etazera erantzun digute: “Igeltseroari aurrekontua eskatu diogu jadanik baina, erantzunaren zain gaude. Gure asmoa kale osoan antzeko ranpak jartzea da, beraz, presupuestoen berri jakiten dugunean garajeen jabeekin hitz egingo dugu aukerarik eta preziorik egokiena zein den erabakitzeko”.



KEXAK

◆ Artetxe kalean bizi den emakume batek honako kexa hau helarazi digu: “**Artetxeko zenbait bizilagunek kotxeak espaloi gainean aparkatzen dituzte**. Ohitura txar hori dela-eta, elbarrituentzat eta gurpildun aukietan dabilzantentzat oztopo gaindiezinak dira gaizki aparkatutako autoak. Badakit aparkatzeko arazo larriak daudela leku falta dela-eta, baina espaloian aparkatzea ez da soluzioa, eta besteen eskubideak zapaltzen dira”.



TXALOAK

◆ Guraso eta zaletu talde batek **Pagoaga-Elgoibar nesken eskubaloi taldea txalotu nahi du egin duten denboraldi aparta dela-eta**. “Oso ondo aritu dira urte guztian, eta azkenean, Espainiako Txapelketako azken fasean bosgarren postua lortu dute. Merezki beste aipamen ez dutela izan iruditzen zaigu. Horregatik, gurasook eta zaletuok zorionik beronenak eman nahi dizkiegu eta onena ematen jarrai dezatela esan. Bide batez, **aukera hau aprobetxatu nahi dugu, Igor, Ales eta Eneko entrenatzaileei eskerrak emateko**, euren dedikaziorik eta pazientziarik gabe lorpen hauek ez baitziren posible izango. Ondo pasatu merezitako oporrak.

B A I , E S A N ?



Amaia Revert

Debako hondartzako sokorrista

Udan sartu berri gara eta eguraldi onarekin jendeak hondartzara jotzen du. Hondartzetako protagonista bihurtzen dira sarritan sokorrista lanetan aritzen diren gazteak. Aurten Debako hondartzan 8 sokorrista daude, horietatik 2 elgoibartarrak. Gu **Amaia Revert sokorristarekin** egon gara beraien lanaren berri izateko.

- Nolatan elgoibartar bat Deban sokorrista?

- Orain dela bi urte ere sokorrista moduan aritu nintzen Deban. Aurten lan horren berri izan nuen eta aukera ona zela iruditu zitzaidanez, aurkeztu egin nintzen.

- Prestakuntza berezirik behar al da sokorrista izateko?

- Titulu bat baino ez dute eskatzen. Eibarren, ikastaro bat egin nuen larrialdietan laguntzeko eta uretan ongi moldatzen ikasteko eta bertan eman zidaten titulua. Fisikoki ez dute prestakuntza berezirik eskatzen. Lanposturako jende asko aurkeztuz gero, uretan nola moldatzen garen ikusteko probak egiten dituzte, baina aurtun 8 besterik ez gara aurkeztu eta denak hartu gaituzte.

- Zein lan egiten duzu udako egun batean?

- Marea goian dagoenean torretan egoten naiz bijilatzen eta marea jaisten denean berriz, ur hertzean. Generalean, jendeak pika-tadak baino ez ditu izaten, salbera direlakoek egindakoak. Erreskateei dagokienez, aurtun, denboraldi hasieran, 2 baino ez ditugu egin, eta susto txikiak izaten dira gehienetan.

- Zein dira sokorrista izatearen abantailak? Eta alde txarrak?

- Niretzat lan polita da. Igeriketa gustuko dut eta baita etortzen den jendeari kurak egitea ere. Dena den, denbora gehiegi pasatzen dut hondartzan eta uda bukaeran hainbeste eguzki hartzeaz nazkatuta amaitzen dut.


- Arriskutsua al da Debako hondartza?

- Debako hondartza dirudiena baino arriskutsuagoa da. Normalean itsasoa nahiko lasai egoten da, baina batzuetan korriente asko sortzen dira. Bandera berdea dagoenean ere kontu handiz ibili behar da, uretara lasai sartu arren, korrienteek estualdi ugari eragiten baitituzte.



ESKERTZA

1999ko ekainaren 28an, 93 urte zituela hil zen **LAZARO MUGURUZA ETXEBERRI**aren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Ana Aizpiri, ETBko kazetaria



- **Kontaiguzu nola hasi zinen ETBn.**

ETB sortu zen urtean ekin nion bertan lan egiteari, hau da, 1983an. Albistegiatarako saioak egin ditut urte hauetan guztietan.

Munduan Zehar, Erreportari/Reporteros eta Tercer

Milenio saioetarako erreportajeak egin ditut: Hannan Ashrawui-ri elkarrizketa, 'Quebec: subiranotasunaren auzia', 'Ipar Irlanda 1985: The Stormont Agreement' eta 'Cuba: el periodo especial' izan dira, besteak beste, interesgarrienak edo aipagarrienak. Albistegietatik kanpo, Hitz eta Pitz saioan aritu nintzen denboraldi batean.

- **Gustura zaude egindako lanarekin?**

Bai, gustura nago orain arte egindakoarekin, baina garrantzitsuagoa iruditzen zait aurrera begiratu eta zereginik badudala ikustea.

- **Aspaldian iritzi artikulatu eta kolaborazio asko idatzi dira ETBk nolako izan beharko lukeen esanaz. Zure ustez zein izan behar dira ETBren ezaugarriak?**

ETBk, telebista publikoa izaki, pluraltasun politikoa erakutsi behar du albistegietan. Gai nontzeko programazioari dagokionean, kalitatezko saioak eskaini beharko lituzke: dokumentalak, gai kulturalak....

- **Zein da ETB-2 kateari buruz duzun iritzia?**

Herri elebidunean bizi garenez gero, ETB-2 beharrezkoa da. Auzia, kate batek eta besteak dituzten baliabideetan legoke.

- **EITBko zuzendari berria aukeratu dutenean ETBren aro berria ezaguko dugula esaten dute batzuek.**

Zuzendari berria, ziurrena, Jaurlaritzak egin berri duen irati-telebista publikoari buruzko gogoetak zer-edozertarako baliagarri izan daitezten saiatuko da bere jardunean. Administrazioa eta nazioartearen ezagutza duen gizona izatea ez dira gauza txarra zuzendari nagusiaren betebehartarako. Ea haize berriek freskatzen duten gure txoritxoaren pantaila.

- **Azkenaldian informatiboetan zabilta. Zein da eman duzun albisterik pozgarriena?**

Gertatutako guztiarengatik, ozpin ikutua bazuen ere, NATOk Serbiaren aurka egindako bonbardaketaren bukaera izan da albisterik pozgarriena.

- **Eta gehien atsekabetu zaituena?**

Albiste askok atsekabetu naute. Nik ez nuen eman albiste, baina Stanley Kubrick hil zela jakin nuenean, gizon handi horren adioak zirrartxoa egin zidan.

Elgoibartarrak

EITBn



Hasier Etxeberria

- 1984an, 'Zopa Haundi' saioa aurkezlea (*Antena de Oro* saria jaso zuen).
- 1985-86, 'Arkupe' kultur saioa eta 'Lapikoka' gastronomia saioa aurkeztu zituen.
- 1987-90 urteetan ETBko programa dramatiko- en eta kulturalen zuzendaria izan zen.
- 1988-1990, Donostiako Zinemaldiko aurkezlea.

- 1988-91, 'Fahrenheit' saio kulturala aurkezlea.
- 1990-91, 'Babel Magazina'.
- 1992-93, 'Beti Eskamak Kentzen' (Emakunde saria jaso zuen).

●

(Egin dituen saio gehienetako zuzendaria, aurkezlea eta gidoilaria izan da. Hemen ez dugu egin dituen saio guztien berri emateko lekurik).

Olga Uncilla

- 1986an ETBko albistegietan hasi zen.
- 'Klip Klip Hurra' musika saioan aritu izan da.
- 'Jaiak' eta 'Euskadi en Fiestas' saioetan egin du lan.
- 'Denbora Pasa' kultur saioan aritutakoa.
- 'Terminus' magazineko kazetaria.
- Dokumental saioetan erredaktore lanak egin ditu:

● *Todaya ayer/Zaharrak berri*

● *Hamar urte luze*

● *Euskal Herritik/Del Pais de los vascos...*

- ELEKA PRESS produktorearen sortzaileetariko bat da (une honetan ETBrako dokumentalak prestatzen ari da).



Aitor Zabaleta

- 1990ean, ETBko albistegietan hasi zen.
- Ondoren, 'Entrada Libre' saioan (ETB-2).
- Ordezkapenak egin izan ditu Gaur Egun eta Teleberri albistegietan.
- 1992an 'Europa 93' programan hasi zen.
- 1993an, '24 ordu' eta 'Erreportari' saioetarako erreportajeak egiten jardun zuen.
- 1995an 'Asteberri' saioan hasi zen.

- 1996an, 'Elkartasun bideak' saiorako erreportajeak egin zituen.
- Gaur egun, eguneroko albistegietan eta 'Asteberri' programan ari da.

Egunotan aukeratu dute EITBko zuzendari nagusi berria. Andoni Ortuzar da Eusko Jaurlaritzak izendatu duen lehendabiziko zuzendaria. Ortuzarrek entretenimendua, kultura eta informazioa uztartuko dituen kalitatezko Euskal Irrati Telebistaren aldeko apustua egin du. Aspaldian askok esan dute haize berrien beharra duela txoritxoaren erreinuak, EITBk alegia. Horrela den ala ez jakiteko, Euskal Telebistan eta Euskadi Irratian lan egiten duten kazetari elgoibartarregana jo dugu. Une honetan 7 kazetari daude ETBn eta beste 2 Euskadi Irratian. Guk ETBko Ana Aizpiri eta Euskadi Irratiko Jose Mari Isasti kazetariekin hitz egin dugu EITBri buruz.

Susana Mujika

- 1991. urtean 'Euskadi Gaztea'ko musika saioretan hasi zen.
- 'Ikimilikiliklip' musika saioa aurkeztu zuen ETB1ean.
- 1995. urtean 'Goizean Behin' irrat Saioko lantaldearekin hasi zen lanean.
- 1996. urtean 'Eguna Esmatzen' saioa zuzentzen hasi zen. Gaur egun bertan jarraitzen du eta 'Goizean Behin' irratsaiorako kolaborazioak egiten ditu.



Lorea Perez de Albeniz

- 1997an hasi zen 'Jaiak 97' saioko kazetari moduan.
- 1997an, 'Superbat' en aritu zen.
- 1998. urtean 'Jaiak 98' saioan, 'Egun-Ero' magazinean, 'Jaiak zuzenean' eta 'Supernet' zuzeneko lehiaketan lan egin zuen.
- Aurten 'Beren Kasa' umeentzako saioan zuzendari laguntzailea izan da eta orain 'Azken Uda Pasa/El Verano del siglo' saioan koordinatzaile lanetan ari da.



Leire Urkidi

- 1998ko abuztutik hona ETB-1eko eta ETB-2eko albistegietako kazetaria da.



Jasone Osoro

- 1999an egin du estreinako lana ETBrentzat. 'Bai Zera!' saioko aurkezlea eta kazetaria da.



Jose Mari Isasti, Euskadi Irratiko kazetaria

- Kontaiguzu irratian egin duzun ibilbidea.

1984an kasualitatez hasi nintzen Gazteiz Irratiko 'Kontu Kontari' irratsaioan. Udaran Euskadi Irratirako korrespontsal hasi nintzen. Bi urte geroago 'Zazpigarrenean Aidanez' magazinean lan egin nuen. Telebistan ere aritu izan naiz lanean. Lehenik, Gazteizko korrespontsalian izan nintzen, eta duela 11 urte inguru udako Gaur Egun informatiboa aurkeztu nuen. Azkenik, duela 9 urte Euskadi Irratian plaza atera eta bertan jarraitzen dut arratsaldeko albistegietan.



- Telebistan eta irratian aritu zara. Non gusturago?

Egia esan, telebistan oso gustura aritu nintzen, baina uste dut irratian gusturago nagoela.

- Zein dira irratiairen berezitasunak. Ba al du abantailarik telebistarekiko?

Irratiak daukan garrantzitsuena bat-batekotasuna da. Irratian oso baliabide gutxiarekin eman dezakezu notizia, gertatu den lekutik bertatik. Telebista, berriz, motelagoa da eta ezin da edozein tokitan egin: irudiak behar dira, irudi horiek editatu egin behar dira, ahotsa jarri... Hala ere, onartu behar da denboraz eginez gero, telebistako bideo bat irratik kronika bat baino politagoa izan daitekeela, baina inoiz ere ez goxoagoa.

- EITBko kazetarion lana begi zorrotzez juzkatzen da.

Ez dakit gure lana zorrotz juzkatzen den ala ez. Beharbada, guk eskaintzen genuen informazioaren eta herri honen zati handi batek bizi zuen egoeraren artean etena egon da, eta garai batean are gehiago. Interes politikoak tarteko ziren eta gauzak orain baino nahasiago zeuden. Dena den, irratian baino, telebistan gehiago nabarmendu zela uste dut.

- Albistegiak euskaraz egiterakoan zein dira aurkitzen dituzuen oztoporik nagusienak?

Printzipioz ez litzateke inolako arazorik izan behar, gertatzen dena da, askotan, notiziaren iturburu bera ez dela euskalduna. Orduan itzuli beharra dago eta ez da gauza bera.

- Jende askok esan al dizu 'zure ahotsa ezaguna egiten zait'?

Ez, ez da kasua. Inoiz taxistaren batekin-edo gertatu zait, baina ez da normalena.

- Nolakoak izan beharko lirateke etorkizuneko Euskal Irratiaren ezaugarriak?

Ezaugarri nagusia euskara berak izan behar du. Gainera, gu irradi publikoa garenez, ez ofiziala, publikotasun horrek eskatzen duen zerbitzua eskaini behar dugu. Eta azkenik, uste dut inguruko irratiei konpetentzia egiten gehiegitan ahalegintzen garela. Euskaldunentzat eginiko irratik euskalduna egin behar dugu. Hemengo notiziak eta gaiak azpimarratu eta gutxiago begiratu aldamenen ditugun bi estatuetako notizietara. Bestelakoan, aipatzen diren teknologia berriak eta hori guztia oso ondo dago, baina beti ere nor garen ahaztu gabe.

Ba al daukazu ETB ikusteko ohiturarik?



LORE IRIONDO

38 urte, erizain laguntzailea

Zapping itxerakuan beti ipintzen dot. Gehixen gustatzen jatan programia 'Jaun eta Jabe' zan. Oindiok oso telebista gaztia da eta asko dake ikasteko.



IGNACIO KORTABITARTE

61 urte, modelista

Bai, dexente, batez ere-ETB2. Lehenengo katiak programa asko repetitzen ditxu eta askotan pesaua bihurtzen da. Bariedade gehixao biharko leuke.



PILAR PEREZ

70 urte, etxeoandrea

ETB 2 ikusten dut, lehenengo katea ez baitut ulertzen. Oso pelikula onak botatzen dituzte eta lehiaketak ere ikusten ditut. Senarrak, ETB1ean futbola ikusten du batzuetan.



NIEVES RABANCHO

43 urte, etxeoandrea

Bai. Ez dut telebista askorik ikusten, baina kirola ikustea gustatzen zait. ETBk programa onak dauzka. Uda partean jaiei buruz egiten duten saioa ere gustuko dut.



DAVID RODRIGUEZ

14 urte, ikaslea

Ez. Telebista askorik ez dut ikusten, eta ikustekotan nahia-go ditut beste kateak. Gehienbat serieak ikusten ditut eta ETBn futbol partiduak



JOSEBA LANDABURU

44 urte, injineru teknikoa

Bai. Normalian pelikulak eta informatibuak ikusten ditzut, eta batzuetan partiduak ere bai. ETBko informatibuak onak dia eta orokorrian nibel ona daka.

- 🚗 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 🚗 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin.


Zatoz informazio eske!



- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal

URKIDI
AHOLKULARITZA
ITT ERCOS ASEGURROAK

Kalamua, 12
ELGOIBAR
Tel-Faxa:
943 74 18 91



KAROBI
TABERNA

San Frantzisko, 37
Tel. 943 74 06 37

ISPILUARI DEGIRA



Arantza Kortabitarte

Ekor Aholkularitzakoa

- **Zure bizitzako zer aseguratuko zenuke?**
 - Osasuna eta familia.
- **Zure gorputzeko zein atal aseguratuko zenuke?**
 - Burua
- **Zein kirolariri egingo zenioke bizi-asegurua doan?**
 - Jalabert txirrindularixari.
- **Bezeroa aholkatu ala konbentzitu?**
 - Aholkatu, baina arrazoirik ez badaka konbentzitu.
- **Jaso duzun aholkurik onena?**
 - Bizitzaren zailtasunen aurrian inoiz ez kokiltzia.
- **Esaera gustukoena?**
 - Hobe berandu inoiz ez baino. Momentu bakoitzak bere esaeria daka.
- **Legeak egiten dituenak tranpa egiten al du?**
 - Bai, dudarik gabe.
- **Zer egiten zaizu legeei buruzko liburu bat irakurtzea bezain astuna?**
 - Pertsona handiuste eta hipokritak, adibidez.
- **Bizi aseguru ala jubilazio plana?**
 - Egokixena bixak edukitzea da.
- **Zortean, kasualitatean edo ahaleginean sinesten duzu?** - Ahaleginean.
- **Etxeko ekonomia onbideratzeko edo saneatzeko bi aholku?** - Irabazten doguna baino gitxio gastau, eta inbertsiuak leku onian sartu, haziendari gitxio pagatzeko.
- **Beharapenetan burua eta dirua ez galtzeko aholku bat?**
 - Dendara jun aurretik zeozer bihar dozun ala ez jakitzia.
- **Besteengan baloratzen duzun bertutea?**
 - Leialtasuna eta zintzotasuna.
- **Zein gaitasun izan nahi zenuke?**
 - Kanturako ahots eta belarri ona.
- **Ametsak gogoratzen al dituzu?** Bai.
- **Umea zinenean zer izan nahi zenuen handitan?**
 - Ez naiz gogoratzen.
- **Zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa?**
 - Zoriontsua izatea; eta bizioak lo egitea eta jatea.
- **Oporrak pasatzeko zein leku aholkatuko zenioke atzerritar bati?**
 - Kostalde guztia.



Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria


San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 ☎ 943 74 33 92

Ibon Arregik irabazi du jaietako kartel lehiaketa

10 lan aurkeztu dira nagusien mailan eta hurrenean 4 besterik ez



1. SARIA · IBON ARREGI



2. SARIA IBAN BARRENETXEA



2. SARIA MIKEL KORNEJO

Udaleko Kultura Sailak eza-gutzera eman du San Bartolome jaietako kartel lehiaketako irabazlearen izena. Ibon Arregi gazte elgoibartarrak egindako lana izan da irabazlea eta 60.000 pta.ko saria eskuratu du. 20.000 pta.ko akzesita, berriz, Iban Barrenetxearen eta Mikel Kornejo-ren lanek irabazi dute erdibana. Na-

gusien mailan 10 partehartzailek aurkeztu dituzte lanak eta gehienak ordenagailuz eginak daude. Epaimahaikideak Alberto García Kokoko kide ohia, Iñaki Raigoso Kokoko kidea, Jokin Martinez Ongarri Argazki Taldeko partaidea eta Egur tailerreko kide bat izan dira. Hurren mailan, partehartzeak behera egin du iazko kopuruarekin konpa-

ratuz. 18 urtetik beherakoen kategorian lau lan baino ez dira aurkeztu eta guztiek eskuratu dute saria. Lehenengo saria Ander Sanchezentzat izan da; bigarrena Gotzon Gutierrezek eskuratu du; hirugarrena Enara Gorostizak eta laugarrena, berriz, Josu Arraizek. Sari banaketa abuztuaren 23an, San Bartolome bezperan, izango da.

Gazte Asanbladako kideen protesta Eibar-Gasteiz autopistaren aurka

Ekainaren 30ean, Elgoibarko 3 gazte epaitu zituzten Eibar-Gasteiz autopistaren aurkako ekintza batean parte hartzeagatik. Hori salatzeko eta dagoeneko hasita dauden autopistaren obren kontra protestatzeko, joan zen zapatuan, hilaren 3an, Udaletxeko obretako sarea margotu zuten, eta Kultur Etxearen parean dagoen gruan pankarta bat jarri zuten Gazte Asanbladako hainbat kidek. Bestalde, larunbaterako, hilaren 10erako, mendi martxa antolatu dute Eibar-Gasteiz autopistaren obrak ikustera joateko. Ibilaldira joango direnak Bergarako frontoitik irtengo dira goizeko 10:00etan.



Sektore askotako jendea elkartu zen presoak euskalerriratzearen aldeko enkarteladan



Joan den larunbat goizean, hilak 3, euskal presoak herriratzearen aldeko enkartelada iraunkorra egin zen Plaza Handian. Lehenengo txandan herriko 8 tabernatoko ordezkariak egin zuten bat helburuarekin. Ondoren, kirolarien txanda izan zen, baina plataformako kideekin batera Morkaikoko ordezkariak bakarrik izan ziren. Irakaskuntzaren arloari egokitu zitzaion hurrengo ordu erdia eta ondoren, hainbat sektoretako ordezkariak pasatu ziren Plazako kartelaren atzetik, besteak beste, lana, kultura eta gaztedia sektoreak. Mikel Askatu Plataformaren txandan jende ugari bildu zen eta gizarte mugimenduak eta dendariak izan ziren hurrengoak. Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformaren helburua hainbat arlotako jendea elkartzea zen eta lortu ere, lortu zutela esan digute antolatzaileek.



Sutea izan zen King-Kong-eko etxeko 12. pisuan aurreko larunbatean

13 pisu dituen King-Kong-eko etxeko bizilagun guztiak beraien etxeetatik atera behar izan ziren, larunbat arratsaldean, hilak 3, 12. pisuan sortutako sutea zela-eta. Sua zegoelaohartu bezain pronto, bizilagun talde batek beste guztiei dei egin zieten, eta laster atera zirenez, ez zen zauriturik izan. Sua Eibarko suhiltzaileek amatatu zuten. Sua Egurdiko 13:30ak inguruan hasi zen sutea 12. solairuko etxebizitza bateko logela batean. Badirudi, kortozirkuito bat izan zela suaren eragilea. Bizilagun guztiei etxetik ateratzeko agindu zieten arren, egon zen 8. pisuan giltzez itxita gelditu zenik. Sua itzaltzeko erabilitako urak kalte ugari eragin zituen etxebizitzan. 18:30ak ingururako bizilagunak beraien etxetara itzuli ahal izan ziren.

172 hurrek hartu dute parte Atxutxiamaikako udalekuetan

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Begirale taldeak, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin antolatutako udalekuetan, herriko 3 ikastetxeetako 172 hurrek hartu dute parte. Hauetatik 117 haur udaleku irekietan arituko dira, eta beste 55 udaleku itxietan. Udaleku itxiak Aubixan eta Lizarran izango dira. Ekintzen artean, jolasak, irteerak, eta eskulanak dira aipagarrienak. Bestalde, uztaillaren 13an, asteartean, San Fermin Txiki Eguna izango da goizeko 10:30etik aurrera. Beraz, udan aspertzeko aitzakiarik ez dute izango Elgoibarko gaztetxoek.



● VI. Komiki Lehiaketa antolatu du Kokoe Elkartek

Kokoe Komiki Elkartek bi urtetik behin Komiki Lehiaketa antolatzen du. Aurten lehiaketaren seigarren edizioa izango da. Edonork har dezake parte lehiaketan bakarka zein taldeka. Gaia eta teknika libreak izango dira eta aurkezten diren istorioek eta pertsonaiek argitaratu gabeak eta orijinalak izan beharko dute. Lanen formatoa 18x24cm-koa edo proportzionala izango da eta luzeerari dagokionez, gehienez 4 orrialde izango ditu. Zuri-beltzeko modalitatea bakarrik egongo da, tono grisak barne. Sariak ez dira nolana hikoak. Lehendanbizikoak 100.000 pta. jasoko ditu; bigarrenak 70.000 pta. eta hirugarrenak 50.000 pta. Gainera, 30.000 pta.ko saria egongo da euskaraz idatzitako komikirik onenarentzat. Infomazio gehiago nahi duenak 943 74 43 44 telefonora dei dezake. Lanak Elgoibarko Kultur Etxean aurkeztu beharko dira urriaren 15a baino lehen (Nafarroa Plaza, 3). Bestalde, Kokoe Komiki Elkarteko kideek adierazi digute, beraien web orria bisitatu nahi dutenek honako helbidera jo dezaketela: www.euskalnet.net/kokoe. Bertan, beraien marrazkiak, orain arte antolatu dituzten komiki asteetako argazkiak eta taldearen historia aurkituko dituzue, besteak beste. E-posta helbidea, berriz, kokoe@euskalnet.net da.



Herri Institutuko ikasleak Parisera ikas-bidaian

Ekinaren 19tik 26ra bitartean, Herri Institutuko 34 ikasle eta 2 irakasle Parisen izan dira ikas-bidaian. Ondo pasa zutela esan digute eta Parisko txokorik ezagunenak bisitatu dituzte-

la azaldu digute, "Eiffel dorrea, Notre Dame katedrala. museoak, palazioak... eta baita Eurodisney eta Asterixen parkea ere". Lagun giroan bidaia polita egin dute eta berriz errepikatuko luketela esan digute, "hala ere, astebete gauza guztiak ikusteko denbora gutxi da". Argazkian ikasle guztiak agertzen dira Eiffel dorrea atzean dutela.



Gillermo Garate aukeratu zuten alkate EAJ-PNVko eta EAko bederatzi zinegotzien botuei esker

EHk eta PSE-EEK zuriz botatu zuten, eta PPkoek bere hautagaiari eman zioten botoa

Joan den larunbatean, hilak 3, alkatea aukeratzeko egindako plenoan aurrikusitakoa bete zen. Guillermo Garatek jasotako 9 botoak nahikoak izan ziren berriz alkate izendatzeko. Hauteskundetan boto gehien jaso zituen EAJ-PNV alderdiak bere hautagaiaren aldeko apustua egin zuen, eta alderdiko 7 zinegotziek Guillermo Garateri eman zioten botoa. Bestalde, EAK ere EAJ-PNV alderdiko hautagaia aukeratu zuen. Honela, argi gelditu zen Elgoibarren zerrenda bateratua aurkeztu ez bazuten ere, bi alderdien artean harreman ona dagoela. Hautagairik botatuena. Guillermo Garate izan zen, bere alderdiko 7 botoez gain, EAKoen beste 2 boto ere jaso baitzituen.

EH, Elgoibarren bigarren zerrenda botatuena eta lau zinegotzi eskuratu dituen alderdia, abstenitu egin zen. Asier Zengotita EHko zerrenda buruak adierazi zuenez, "herrian botatuena izan den alderdiko hautagaia alkate ateraz gero, lan ona egingo duela uste dugu. Beti ere, Lizarra-Garaziko akordioa kontuan hartzen badu. Gainera, alder-



Argazkian agertzen diren 17 zinegotziek osatzen dute Elgoibarko Udal Korporazioa. EAJ-PNVk 7 zinegotzi ditu; EHk 4 eta EAK, PSE-EEK eta PPk, bina.

diko bozeramale naizen aldetik esan nahi dut Gobernu Batzordean parte hartzeko prest gaudela".

PPko bi zinegotziek Eulogio Perez Garairi, bere alderdiko zerrenda buruari, eman zioten botoa. Hautagaiak, beraz, bi boto jaso zituen. Azkenik, PSE-EEK zuriz botatu, eta zerrendarik botatueneko hautagaia alkatetzarako onartu zuen.

Plenoaren hasieran, zinegotzi nagusienak, Maria Teresa Iraegik (EAJ-PNV) eta gazteenak, Iñigo Arkauzek (PP) adineko mahaia osatu zuten, eta ondoren zinegotzien izendatzea egin zuten. Idazkariak korporazioa osatuta

zegoela adierazi ostean, alkatea aukeratzeko botazioa hasi zen. Une horretan "Eulogio Perez - Iñigo Arkauz carceleiros" zioen pankarta atera zuten gazte batzuek, eta adineko mahaiko lehenakariak, Maria Teresa Iraegik, kentzeko adierazi zien. Hala ere, alkate berria izendatu arte ez zuten alde egin.

Botoak kontatu ondoren, Guillermo Garatek boto gehien jaso zituela jakin zen. Orduan, alkateak, bere aldeko apustua egin zuten guztiei esker eman zien eta etorkizunerako asmoak azaldu zituen: "Legealdi ber-

rirako inguru sozio-politiko ezberdina daukagu, gaur arte guretzat ezezaguna zena, beraz, bake prozesua dela-eta pozik egon behar genuke. Udaletxera indarberrituta nator, baita nire alderdiki-deak ere, eta gainontzeko alderdien laguntzarekin, Elgoibarren garapenaren alde lanean gogor arituko naizela uste dut. Herritarren kritikak entzuteko prest nago, beti ere, konstruktiboak badaira".

Plenoa amaitu zenean, korporazio berriko kide guztiek argazkia atera zuten Udaletxeko Areto Nagusian.

Elgoibar sortu zeneko hiri-gutuna Udaletxean ikusgai izango da

1420 urtean Juan II.ak herriari emandako dokumentua da

Elgoibar sortu zeneko hiri-gutuna Udaletxeko Pleno Aretoan jarri dute ikusgai. 1420 urteko dokumentua da, eta eraberritu ostean, jende guztiak ikusi ahal izango du. Eraberritze lana oso prozesu luzea izan da. Lehenengo, gutunaren azterketa egin zuten, eta ondoren, argazkia atera zioten berritzeko erreferentzia bat izateko. Dokumentuaren gaineko zikinkeria kendu oste-

an, etanolez eta glizerinaz garbitu zuten, eta ondo lisatu eta lehortu ondoren, hasierako forma eman zioten. Bestalde, seilua ere berritu egin dute, eta tratamendu berezia eman diote ez karbonatatzeko. Seiluak alde batean Juan II.a erregearen irudia dauka. Tronuan agertzen da bere lurraldeko eskudoarekin, beste aldean, berriz, erregea zaldi gainean ageri da. Detaillez

egindako lana da hau. Gaztelania zaharrean idatzita dagoen testu originalaz gain, euskarazko itzulpena ere jarri dute, eta jendeak testuaren fotokopiak eskuratu ahal izango ditu, bitrinaren ondoan jarriko baitituzte. Juan II.ak Elgoibarri emandako hiri-gutuna ikusi nahi dutenek Udaletxeko Pleno aretora joan daitezke, gure herriaren jatorriaren testimoniao baita dokumentu hau.

Txiki BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 55. GEHIGARRIA




Hasi eta hezi elkarrekin egin gara. Hiru urterekin, pardelak ia kendu gabe elkar ezagutu genuenean, ezin genuen pentsa elkarrekiko harremanak, hainbeste urtean, gero eta handiagoak eta sakonagoak bihurtuko zirenik. Momentu honetatik aurrera, ikasketak direla medio, agian banatu beharra izango dugu, baina gure bihotzek ezingo dute orain artekoa ahaztu. Nahiz eta urteak aurrera joan, beti lagunak eta adiskideak izango garela ziur gaude.

Txistea

Zoroetxean.

- Zoro batek, bisitari batengana korrika joan eta esaten dio:
- Apezpikua naiz, apezpikua!
- A bai? Eta nork esan dizu apezpikua zarela?
- Aita Santuak berak!
- Ez egin jaramonik, burutik dago eta —eransten du ondotik pasatzen den beste batek—. Nik ez diot ezer



Jakitunen eskutik

Seme-alabek denbora behar dute

Elkarbizita zorionsua lortzeko ez dago formula majikorik. Baina gauza jakina da aitak zein amak etxetik kanpora lan egiten duten familietan, gurasoen nahia seme-alabak baztertuta ez uztea dela.

Gurasoek etxetik kanpora lan egiten duten familietako haurrak, gainontzeko gaztetxoak baino independenteagoak, irudimen handiagokoak eta aurrerakoia-goak izan ohi dira. Gainera, ez dute izaten emakumeen eta gizonezkoen eginkizunei buruzko estereotiporik. Ez behintzat, aitak etxeko lanetan parte hartzen duen familietan.

Jadanik, leku gehienetan desagertu dira etxetik kanpo lan egin eta dirua ekartzen duen aitaren, eta etxe barruan garbitzaile eta umezain lanetan aritzen den amaren irudiak. Orain, aitak dirua ekartzeaz gain, etxeko lanak ere egiten ditu, eta badira kanpoan lan egiten duten emakumeak. Hori ez da etxe guztietan gertatzen, baina berdintasunerako bidean goaz.

Guraso askok etxetik kanpo egiten dute lan eta seme-alabentzat denbora gutxi daukate. Beraz, garrantzitsuena denbora apur hori hurrekin harreman ona lortzeko aprobeztatzea da. Erlazio egokia izanez gero haurrek ez diote pegarik jarriko gurasoek etxetik kanpo lan egiteari.

Estatu Batuetako egoerara iritsi ez bagara ere, hemen badira etxearen jaun eta jabe diren haurrak. Gaztetxoek eta haurrek, etxera ailegatu eta beraiekin

arduratuko den inor ez badaukate, nahi dutena egin ohi dute. Nahi beste telebista ikusi, gogoia dutenean edozer gauza jan, eta nahi dutenean etxetik atera ohi diren haur asko dago gure inguruan.

Sarritan egoera hau haurren delinkuentziarako lehen pausoa izaten da. Hori dela-eta, gurasoak ezin badira etxean egon, egokiena familian bertan edo senditiki kanpora laguntza bilatzea da.

Gehienetan gurasoak kezkatu egiten dira eta haurrak etxean bakarrik geratzearen errudunak beraiek direla uste dute. Haurrek, ordea, egoerari ez diote ikuspegi beretik begirutzen. Normala iruditzen zaie gurasoak lan kontuengatik etxetik kanpo ordu asko pasatzea. Gainera, batzuetan autonomia piska bat ere nahi izaten dute. Jolaserako aske izatea gustatzen zaie.

Araza larriagoa da nerabeen kasuan. Nahi dutenean libre utzi behar zaie, eta eskatzen dutenean, berriz, beraien gainean egon, kontatzen dutena entzuteko.

Esan bezala, ez dago gurasoen eta seme-alaben eguneroko elkarbizita zaila errazten duen formula majikorik. Baina familiako zorientasunaren errezetaren osagaiak honako hauek dira: gurasoen arteko harreman ona, seme-alaben nahiak betetzea eta maitasuna. Azken finean, beraiekin egoteko denbora piska bat besterik ez diete eskatzen haurrek gurasoei.

Iurria: El Pais aldizkaria

Zer iritzi daukazu*kirol*.....ei buruz?



Kirola gauza ona da, askibaloian, futbolean... jokatzen ikasten duzulako. Bizitzarako ere ona da.

SANDRA BELLON, 10 urte



Osarungarria da eta sarri betean egon behar zara nekatu nahi ez baduzu.

RAUL FERNANDEZ, 12 urte



Kirola da gauza bat gorputza indartzeko eta meheago egoteko. Baita ere hankako eta besoiko muskuluak indartzeko.


JANIRE GORRITI, 8 urte



AITZOL GONZALEZ
13 urte

Galde debalde

1. Nori eskatuko zenioke autografo bat?
2. Zein urtaro gustatzen zaizu gehien?
3. Zein da umea izatearen desabantaila?
4. Dantzarako abesti bat?
5. Noren kontzertua ikusiko zenuke?
6. Zertarako gaitasuna izan nahi zenuke?
7. Zein pelikulatako protagonista izango zinateke?
8. Gehien gustatzen zaizun ikasgaia?



MAIALEN GURRUTXAGA
6 urte

- 1- Kovacevic.
- 2- Uda, jaien eta oporren garaia delako.
- 3- Ikasi beharra.
- 4- Ez daukat bat bereziki gustukoa.
- 5- Komaren kontzertura.
- 6- Korrika azkar egiteko gaitasuna.
- 7- La Mascara filmekoa.
- 8- Gizartea.

- 1- Inori ere ez.
- 2- Uda. Oporrak dialako eta jolasteko denbora gehixo dakatelako.
- 3- Danak dia abantailak.
- 4- Ez jata dantza itxia gustatzen.
- 5- Alaitz eta Mainerren kontzertura.
- 6- Bizikletan ondo ibiltzeko gaitasuna.
- 7- Napoleon txakur abenturazalea pelikulakua.
- 8- Danak.


Zer da... *itsasoa*.....?

NEREA GIL 12 URTE



Batzuetan bare eta besteetan harro egoten den pizsina handia.

MIREIA DE CASTRO 9 URTE



Ur gazi asko duen tokia. Bertan arrainak, algak eta gauza miresgarri batzuk daude.

ISRAEL ISASTI 11 URTE



Itsasoa, animalia bizidun misterioitsu asko dituen mantxa handi bat da.

ENEKO ITURBE 9 URTE



Bertan arrain mota asko daude, baina kutsadurarengatik desagertzen ari dira.

ANDER MARTIN 10 URTE



Urezko ispilu bat. Ikusteko eta bainatze-ko oso polita.

MIRIAN MUGERZA 8 URTE



Itsasoan arrainak, dordokak eta txalupak daude. Itsasoa ez da inoiz bukatzen eta mundu osoan dago.

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Zer da hau?



2. Zer galdetu diegu?



XABIER LOPEZ
9 urte


"Askotan ez naiz joaten, baina joaten naizenean bainatu egiten naiz edo surfeko tabla-rekin ibiltzen naiz. Raketekin ere jolasten dut".

IERA RODRIGUEZ
6 urte

"Kotzez edo trenez juten naiz amakin. Han baina itxen naiz eta baitxa jolasian ibili ere. Hondarrezko gazteluak itxen ditxut batzuetan".



3. Zein lora lortuko du?



4. Asmakizunak

— Eguzkia hasieran bukaeran lorea.
Zer izango ote da?

— Sutan nago, ez naiz erretzen, itsasoan nago, ez naiz bustitzen, airean nago, ez naiz erortzen.
Igarriko al duzu nor naizen?

— Ez da zerra eta moztu egiten du, ez da iltzea eta zulatu egiten du, ez da pistola eta hil egiten du.
Zer den badakizu?

Xabier Elizburu Aranbe, da herri honetan sortutako artean, apaiz ordenatu den azken gizona da. 27 urte betetzear dagoen elgoibartarra, beste 4 gazterekin batera, pasa den ekainaren 29an ordenatu zen Donostiako Artzai Onaren elizan. Horretaz gain, joan den zapatuan eman zuen bere estreinako meza San Bartolome Parrokian. Bartzelonan Teologia ikasketak burutu baino lehen, apaiz bihurtu bitarteko ibilbideari buruz eta, elizari eta gizarteari buruz hitz egin du Xabierrekin.

XABIER ELIZBURU

“Elizak herriaren bizitza jaso eta ebanjelioaren proposamena egin behar du”

– Nondik sortu zitzaizun apaiza izateko bokazioa?

- Gaztetan Parrokian hasi nintzen kolaboratzen eta herriaren bizitzan kristau izatearen nahia hausnartzen. Hortik, poliki-poliki, kristau izateko modu bat bezala ikusi nuen apaiza izatea. Hortaz, Elgoibarko Parrokiatik sortu zen nire apaiz izateko nahia.

– Zuretzat zer da fedea?

- Herriaren eta norberaren bizitzan kokatzeko era bat. Kristau izatea gure bizitzari aurre egiteko modu bat da.

– Asko kostatu al zitzaizun apaiza izateko erabakia hartzea?

- Seminarioan 6 urte pasatzen dira apaiz egin arte. Hala ere, aurretik, apaiz sartu alaez sartu, idea hori bueltaka edukitzen da. Batzuetan zalantzak, eta, beste batzuetan, gauzak nahiko garbi edukitzen dira. Bizitako esperientzietatik hausnartzen joaten da azkenean apaiz izateko bokazioa ikusteko.

– Apaiz egin eta gero zure bizimodua aldatuko dela uste al duzu?

- Nire bizitza ez da ezertan aldatuko. Lehengo Xabier izango naizela uste dut. Egia da, noski, apaiz bezala parroki batean egongo naizela eta herri horretan apaiz lana egin beharko dudala. Baina espero dut lehengo Xabier izaten jarraitzea.

– Nolakoa izan zen ordenazioa?

- Gipuzkoako bost mutil gazte apaiztu ginen. Eliza jendez beteta zegoen, eta nahiz eta ospakizuna luze xamarra izan (2 ordu inguru), nahiko pozik atera nintzen.

– Zer izan zen zuretzat lehenengo meza ematea?

- Elgoibarko nire lehenengo meza izan zen larunbatekoa, eta herritarren aurrean publikoki agertzeak beti sortzen du kezka, ardura. Ni oso pozik egon nintzen, herriarekin batera kristau naizela ospatzea oso inportantea da niretzat.

– Nola ikusten duzu gizartearen eta elizaren arteko harremana?

- Eliza eta gizartea nahiko aparte joan dira. Izan ere, herri bakoitzak bere bizitza darama eta berak antolatzen du bere bizitza. Hala ere, herri horren barruan eliza dago eta elizak bere bizimodu propioa eramaten du. Etorbizunean, apaiz bezala, nik uste dut eskema hau puskatu egin behar dela. Eliza, gizartearen eta herriaren erdian dagoen elkarte bat da, eta herriaren bizitza jaso eta ebanjelioaren proposamena egin behar du.

– Zer dela-eta daude hain ordenazio gutxi?

- 5 apaiz ordenatzea asko izan da. Dena dela, gizartea aldatzen ari da eta baita eliza ere gizartearekin batera. Hemendik aurrera ez dut uste lehen beste pertsona apaiztuko denik. Elizaren estruktura eta eskemak aldatu behar dira. Apaiz gutxi egotea gizarte honen isla da.

– Zein boto hartzen dituzte apaizek?

- Apaizok ez ditugu botoak hartzen, promesak egiten ditugu, ez da gauza bera. 3 promesa dira: Gotzaiari obedientzia, zelibatoaren promesa eta azkenik, pobreziaaren promesa.

– Zein bide jarraituko du Xabier Elizburuk hemendik aurrera?

- Bukatu berri den ikasturtean Bartzelonan egon naiz Teologiako espezialitate bat egiten, Teologia Fundamentala delako lizentziatura, eta datorren urtean Bartzelonan jarraituko dut. Bartzelonan segitzen dudana bitartean Eibarko San Andres Parrokian egongo naiz. Baina ikusi egin behar da, oraindik erabaki gabe dago nire hurrengo destinoa.

Arnaitz Gorriti

BESTEAK ESANA

“Bere izaerak egiten du kristau xume eta hurbila”
ION LOIOLA, laguna.





Pedro Gorriti Etxeberria

(1907-1949)



Francisco Zubiaurre "Pakotxo" elgoibartarrak 1951n alde egin zuen Mexikora. Gaur egun 73 urte ditu, eta jaioterria aspaldi utzi

Francisco Zubiaurre

zuen arren, beti izan du gogoan Elgoibar. Duela 48 urte Sigman egiten zuen lan, baina bizimoduz aldatzeko gogoia sentitu zuen eta Mexikora joan zen. "11 urte pasau nitxuan Mexikon, 7 urte Euskal Zentroan. Hainbat lan probatu ondoren, Euskal Herrira bueltau nitzan, Zarautzera. Lau urte in nitxuan bertan eta mekanika arloarekin erlasionautako enpresa bat sortu naban". Duela 20 urte, geldik egon ezin den gizon hau Gasteizera joan zen bizitzera, eta komertzioaren munduan sartzea erabaki zuen. Arropa denda bat ireki zuen, eta gaur egun Zubiaurre izenarekin 10 denda ditu, horietatik 7 Gasteizen eta 1 Eibarren. Guztira 35 langilek egiten dute lan denda hauetan, eta seme-alaba eta familiak laguntzen diote negozioa aurrera ateratzen. Elgoibarrera sarritan etortzen dela esan digu, "beti mantendu dot kontaktua Elgoibarko lagunekin eta familiakin, Eibarko dendia bisitatzera ere etortzen nitzan, baina oin gitxiotan juten naiz, edadiak ez dau barkatzen". Gasteizen gustura bizi da eta afizio berriak ere baditu, "oso hiri lasaixa da eta aukera asko eskaintzen ditxu, Larrabeako zelaxan golfian ibiltzeko edo pilota partidu edarrak ikusteko, adibidez".



VIAJES **BILBAO EXPRESS** BIDAIAK

**bidai agentziak
babestutako atala**

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12



- 1907ko urriaren 19an jaio zen San Frantzisko kalean. 4 anai-arreba izan ziren, bera zaharrena. Eskola publikoetan egin zituen ikasketak.
- Gaztetan Madalako koadrilakoa izan zen eta Plazatarren aurka aritzen zen futbolearen korrika, etab. 13 urterekin, "Mecanicas Jose Leon Ciarran" lantokian hasi zen lanean, gaur egun Tiroriro taberna eta Gorriti denda dauden tokietan. Azken hau, bere alaba Maria Isabelek zuzentzen duen denda da.
- 18 urterekin Santa Ana kalean zegoen "Estarta y Ecenarro" lantegian hasi zen. Langile amorratua zen, eta laster erakutsi zuen mekanika arloan zeukan trebetasuna. Marinaran soldaduzka egitetik libratu ondoren, 1933ko urtarrilaren 28an ezkondu zen Ermuan, bertako Isabel Bergaretxerekin. 3 alaba izan zituzten.
- 1936ko gerratean Frantzian egon zen errefuxiatuta. Eulogio Estartak Pedro begiko zuenez, gestioak egin eta honuntz ekartzea lortu zuen. Gero, Sigma lantegia sortu zen eta Pedro tailerreko lehenengoetarikoa burua izan zen. Denbora luzez herriko eta erbesteko jende mordoia sartu zuen lantegian, eta baita jende askori mesedeak egin ere. Ondoren, G.E.R lantegia sortu zuen, eta bertako zuzendaria izan zen 1948 ingurura arte.
- Oso ospetsua zen herrian C.D. Elgoibarko jokalaria izandakoa, genio bizikoa, adarjotzailea eta txistek kontatzen trebea. Ehiza gustuko zuen, bereziki oilagorretan ibiltzea Ekaitz mendian. Horregatik, iloba batek Ekaitz izena du.
- Familia girokoa eta sinesmen handikoa zen. Lana, ehiza eta "Bar Arriola"n egiten zituzten tertulia luzeak ziren Pedroken zaletasunak.
- Sasoirik onenean hil zen gaixorik. Bere heriotzak samin handia sortu zuen herrian eta hiletetan jende askok hartu zuen parte.
- 1949ko azaroaren 22an hil zen, Santa Zezilia egunean, 42 urte zituela.

Juanito Gorostiza



Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ 943 20 35 15

☎ ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa)
● 20600 EIBAR



Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR



A

ste honetako erretratua **Mari Carmen Leiaristik** ekarri digu. 1966ko Urteberri egunean dago aterata, orain dela 33 urte. Neska koadrila honek neguan atera zuen argazkia; argi ikusten da erropei begiratu gero.

Argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara honako hauek dira: **Mari Carmen Astigarraga, Mari**

Carmen Leiaristi Olariaga, Mari Carmen Leiaristi Azpiazu eta Elisabeth Zuazubizkar.

Behean eserita, **Mercedes Loiola, Kontxi Ansola eta Maria Jesus Etxeberria.**

Mari Carmenek esan digunez, Labordeta argazkilariak atera zuen argazkia.



"Errepidean aldapan gora disfrutatzen dut"



Iban Gonzalez

- **Adina:** 14 urte.
- **Kirolari gustukoena:** Marco Pantani.
- **Gogoko kirol edo zaletasunak?** Txirrindularitza dut kirolik gustukoena, eta udan gaudenez, hondartzara joatea da nire zaletasuna.
- **Zer kirol gustatuko litzaizuke probatzea?** Eskalada.

-Gazteen mailako Nahaste Borraste proba irabazi zenuen. Zer moduz? - Oso gustura ibili nintzen, txirrindularitzako proba aprobetxatu nuen ihes egiteko, eta zakuarekin zailtasunak izan nituen arren, ez zitzaidan hasieran pentsatzen nuen bezain gogorra egin. Irabaztean poz handia hartu nuen, parte hartzen nuen hirugarren aldia baitzen, lehenengo urtean hirugarren bukatu nuen, iaz bigarren eta aurten, azkenean, lehen postuan. Hala ere, lasterkari gehiagok parte hartu izana gustatuko litzaidake, 14 urtetik beharako lasterketan oso pertsona gutxi eman zuten izena-eta. Proba herrikoi honek bizirik jarrai dezan jende gehiago animatu beharko litzateke.

-Saltaka, bizikletan, zakuarekin lepoan, zer da gogorrena? - Dudarik gabe, bizikletatik jaitsi eta 10 kiloko zakua lepoan hartuta saltaka egin beharra. Zakuaren pisua sorbalda bietan banatzea da trukoa, baina hala eginez ere nahikoa lan. Dena dela, gure proba baino, nagusiek egiten dutena iruditzen zait gogorragoa.

-Txirrindularitzan aritzen zara, ezta? - Bai, Elgoibarko Lagun Taldean nabil, infantiletan.

-Zer moduz denboraldia? - Nahiko ondo, lasterketa batean bigarrena izan nintzen eta beste lasterketa batzuetan lehen postutik hurbil ibili naiz.

-Zein dira zure ezaugarriak? - Errepidean aldapan gora disfrutatzen dut, baina oraingoz gure kategorietako lasterketetan ibilbide lauak dira nagusi.

-Tourrak baja ugari izango ditu aurten. Izango al du interesik? - Momentuko txirrindulari onenek parte hartzen ez badute, asko galduko du Tourrak. Niri pena ematen dit, asko gustatzen baitzait txirrindularitza. Dena dela, Olanorentzat aukera ezinhobea dela uste dut, badut berarengan konfidantza.

-Doping-aren inguruko eztabaidak ez al du txirrindularitzaren irudia zikintzen?

- Bai, dudarik gabe. Gauza asko argitzeko daudela uste dut, doping-aren inguruko araudiak zehaztu beharko lituzkete. Ezer hartu gabe edo laguntzarik gabe, ezin daiteke eliteko txirrindularitzan aritu. Izan ere, txirrindularitza gure adinekoentzat gogorra bada, are gehiago da Tourmalet eta antzeko mendiak igo behar dituztenentzat.

-Nora gustatuko litzaizuke bizikletanjoatea? - Santiagoko bidea egin-go nuke bizikletaz, nire anaiak egina dauka eta oso polita dela esan dit.

-Datorren urtean nagusien mailan arituko zara Nahaste Borraste proban. Esperantzarik bai? - Irabaztea ia ezinezkoa izango da, baina badaukat probatzeko gogoia. Nire asmoa poliki poliki ikasten joatea da.

Mutriku-Deba 5. Igeri Trabiesa larunbatean, hilaren 10ean, izango da

Elgoibarko Urgazi Triatloi Taldeak 5. Mutriku-Deba trabesia antolatatu du. Igeriketa proba gogor hau zapatuan, hilak 10, izango da eta goizeko 12:30ean hasiko da Mutrikuko hondartzan. Hala ere, partehartzaileek 12:00etan azaldu behar dute Mutrikuko hondartzara, markaketak eta inskrikzioak egiteko. Uretako gorroa eta betaurrekoak norberak eraman beharko ditu eta izen-ematearen zenbatekoa 500 pta.koa da. Antolatzaileek jakinarazi digutenez, "lehendabizikoentzat ez da trofeorik izango, eta proba bukatzea lortzen duten guztiei kamisetak eta opari txiki bana emango diegu".



Bailara guztiko hainbat igerilarik hartuko dute parte proban.

Oihana Apellaniz eta Unai Arrieta Gipuzkoako eskubaloiko jokalarari onenak aukeratu dituzte

Bestalde, 5 elgoibartarrek Euskadiko eskubaloi selekzioarekin Alicanteko torneoan jokatuko dute

Ekainaren 25ean, ostiralean, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak denboraldiko jokalarari onenak saritu zituen Donostian. Azken urteotan gertatu den moduan, Elgoibar Kirol Elkarteko Eskubaloi Taldeko hainbat ordezkari izan ziren sari banaketan. Sari garrantzitsuak irabazi zituzten elgoibartarrek. Nesken kadete mailan esaterako, Oihana Apellaniz, *Pagoaga-Elgoibar* taldekoa, denboraldiko jokalarari onena aukeratu zuten. Hala ere, Oihanak ez du denboraldia amaitutzat eman, uztailean bi kontzentrazioetan hartuko baitu parte, Euskadiko selekzioarekin lehenengo eta Espainiakoarekin gero. Unai Arrietak, berriz, ju-



Oihana Apellaniz
KADETE NESKEN MAILAN
GIPUZKOAKO JOKALARI ONENA



Unai Arrieta
JUBENIL MUTILEN MAILAN
GIPUZKOAKO JOKALARI ONENA

benil mailan Gipuzkoako jokalarari onenari ematen zaion saria jaso du bigarren urtez jarraian. Unai Eibarko *Arraten* jokatu du aurten, baina Irungo *Bidasoa* taldeak fitxatu berri du datorren denboraldirako.

Bestalde, Euskadiko selekzioak torneo bat jokatuko du uztailean Alicanten kategoria guztietan. Honako hauek izango dira selekzioarekin Alicanterako joateko deitu dituzten elgoibartarrak: Kadete mailan, Maite eta Ainhoa Uriarte, Amaia Polo eta izango dira elgoibartako ordezkariak. Jubenil mailari dagokionez, gorago aipatu dugun Oihana Apellaniz eta Erika Etxabek izango dute Euskadiko kamisetarekin lehiatzeko ohorea.

Tresna berriak jarri dituzte Mintxetako muskulazio gelan

Udal Kirol Patronatuak 3 tresna berri erosi ditu Mintxetako muskulazio gelan jartzeko. Ariketa kardiobaskularrak lantzeko egokiak dira makina berri hauek: 'Step' izenekoa da bat eta bigarren aparailuak zinta gainean saltaka egiteko balio du. Muskulazio gelako arduradunek adierazi digutenez, "hasieran, aparailu hau jende askok erabiliko duela uste dugu eta 50 pta. ordaindu beharko da orduerdi saltaka ibiltzeko". Hirugarren aparailua bizikleta estatiko profesionala da, "hainbat martxa sartzeko aukera eskaintzen du eta orain arte zeudenak baino modernoagoa da". Hiru apa-

railuek batera, milioi batetik gorako balioa dute. Bestalde, muskulazio gela irekita egongo da uztailean. Beraz, aparailu berriak probatzeko aukera izango dute udan kilo batzuk kendu nahi dituztenek.



Ariketa kardiobaskularrak lantzeko dira tresna berriak.

EMAITZAK

Futbola

Futbol 7 Txapelketa,

Bar Las Torres 2 - Bar Gure Toki 6
Inkision 7 - Kaskima Brewers 0
Costo de Doñana 15 - Laranja Mek. 1
La Tarantela 2 - Kadar 10
A.P.T.C.P.K Dos 1 - Bar Margon 0
Faustino VII 3 - Elur F.S. 0
Olaso F. C 1 - El Que Sobra 3
Zergatik ez 5 - Tiroriro Taberna 3
Zordunak 0 - F.C. Los Cillones 1
No Nos Patrocinan 1 - Elgoibar F.S. 0
Los Txatos 2 - Malas Hierbas 4

Tenisa

Bailarako Tenis Txapelketa

Bikentzi Urkidi 8 - Fernando Rico 0
Luis Alfageme 0 - Ander Oñederra 8
Abel Hernandez 0 - Agustin Blanco 8

AGENDA

Futbol 7 Txapelketa, Mintxetan

Larunbata, 10

9:00 Bar Las Torres - Kaskima Brewers
9:00 Bar Gure Toki - Costo de Doñana
10:00 Inkision - Laranja Mekanikoa
10:00 La Tarantela - Antzarrak
11:00 Kadar C.F. - Bar Margon
11:00 Grassopers - A.P.T.C.P.K.Dos
12:00 Faustino VII - El Que Sobra
12:00 Elur F.S. - Zergatik ez

Igandea, 11

10:00 Olaso F.C. - Tiroriro Taberna
10:00 Zordunak - Elgoibar F.S.
11:00 F.C. Los Cillones - Los Txatos
11:00 No nos patrocinan - Malas Hierbas

Tenisa, Udal Tenis pistan

Ostirala, 16

11:00 Angel Castro - Fernando Rico

Sunday is Gloomy

Nork ez du Billie Holidayren izena noizbait entzun, beti ere jazzarekin lotura eduki duen "pertsonea" izan da, nahiz eta askok emakumea edo gizona den jakin ez.

2 urte egon naiz Lady Dayren (ezizena) abesti baten atzetik, Ferrararen "The Funeral" filmea ikusi nuenetik hain zuzen. Filmearen musika erosiz gero ez zen abesti originala agertzen, "Misty" izeneko taldeak egiten zuen bertsio berri bat baizik. "Gloomy Sunday" abestia Billie Holidayren disko gutxitan agertzearen arrazoa, abestiak berak aditzera ematen duen mezuarekin lotuta dago. Norbere buruaz beste egitearen apologia egiteagatik abesti hau komertzializatzea debekatu egin zuten, hona hemen zentsurak inposatutako beste leloa. Louis Armstrongren soinuan inspiratzen zen ahots ahaztezin eta zigortuaren opari gisa, gaur bertan topatu ahal izan dut azkenean abesti triste eta zoragarri hau (remasterizatu gabe gainera), askotan ezusteak une hoberenean heltzen dira... mezuak mezu, hizkuntzarik ez balu bezala entzuten dut..

Iban Urizar



12 pelikula emango ditu Ongarrik aire libreko zinean

Gaur (uztailak 9) hasi eta abuztuaren 4ra arte luzatuko da

Ongarri Zine Klubak Udal Kultura Sailaren laguntzaz antolatzen duen aire libreko zinea gaur, hilak 9, hasiko da Plaza Handian. Uztaileko eta abuztuaren lehen asterako 12 emanaldi prestatu ditu Ongarrik. Honetaz gain, San Bartolome jaietan bost emanaldi izango dira.



Gaur ostirala, hilak 9, "Bichos" pelikula izango da Plaza Handian aire libreko zinean emango den lehen pelikula, hain zuzen. Asteburu bakoitzeko bi emanaldi prestatu dituzte, "ostiraletan jende guztiak ikusteko moduko pelikulak eskainiko ditugu eta larunbatetan haurrei zuzendutakoak. Pelikulak aukeratzean, kolore eta argitasun asko dituzten filmeak ekartzen saiatu gara". Lau filme Elgoibarren estreinatu gabekoak dira, eta une honetan beste herrietako antzokietan ematen ari dira. Abuztuaren lehen asteko pelikulak, berriz, jadanik estreinatutakoak dira. Egunen batean euria egingo balu, hurrengo egunera atzeratuko litzateke emanaldia. Urteroko ohiturari jarraituz, filmeetariko bat euskaraz izango da. Hain zuzen, "Charlie & Louise" da euskaraz entzun ahal izango den filmea.

Hitzarmenaren bukaera

Duela 3 urte Udal Kultura Sailarekin adostutako hitzarmenari esker, *Ongarrik* 1.600.000 pta.ko dirulaguntza jasotzen du urtero zine kluba eta aire libreko zinea prestatzeko. Aurten bukatzen da hitzarmena eta *Ongarriko* kideek adierazi digutenez, "gustura



gaude azken hiru urteotan egindako lanarekin eta jarraitzeko prest gaude". Aurten 10. edizioa beteko du aire libreko zineak eta guztira 170 pelikula eskaini dituzte 10 urteotan.

Ikusle kopuruari dagokionez, iaz, 15.000 ikusle hurbildu ziren saio guztietara. "Marka bat ere hautsi genuen, 'Titanic' filmea ikustera 2.000 lagun joan baitziren, eta hori ez da kopuru makala".

Azkenik, *Ongarriko*ak zenbait pertsona pantailarekiko duen jarreraz kezu dira. "Pantailara bota dituzten gauzen ondorioz, zuloz beteta dago. Zuloek emanaldiaren kalitatea gutxitzen dute eta hori guztion kalterako da".

AIRE LIBREKO ZINEA

UZTAILA

9, ostirala

22:30 Bichos

Iraupena: 1h 30m.

10, larunbata

22:30 Babe el cerdito en la ciudad

Iraupena: 1h 30m.

16, ostirala

22:30 La sombra del faraon

Iraupena: 2h.

17, larunbata

22:30 Charlie & Louise

(Euskaraz)

Iraupena: 1h 30m.

23, Ostirala

22:30 The Faculty

Iraupena: 1h 30m.

24, larunbata

22:30 El principe de Egipto

Iraupena: 1h 45m.

30, ostirala

22:30 Trabajo basura

Iraupena: 1h 30m.

31, larunbata

22:30 Mi marciano favorito

Iraupena: 1h 45m

ABUZTUA

1, igandea

22:30 La niña de tus ojos

Iraupena: 2h.

2, astelehena

22:30 Antz

Iraupena: 1h 30m.

3, asteartea

22:30 La mascara del zorro

Iraupena: 2h 15m.

4, asteazkena

22:30 El hombre que

susurraba a los caballos

Iraupena: 2h 45m.



Udako

ahots berria



Jon Gurrutxaga duela zazpi urte hasi zen Zazpiki irratian. Ordurako argi zeukan bere bokazioa, edo hala dirudi behintzat. Elgoibarko irratian hasi eta 21 urteko gazte honek goian jarria du

bere meta. Kazetaritzako hirugarren maila bukatu berri du eta karrera amaitzeko ikasturte bat falta zaion honetan, horren gustukoa duen medioan hasiko da lanean. Udako asteburu goi-

zetan Euskadi Gaztean entzun ahal izango dugu Jonen ahotsa. "Goizeko soul"ekin esnatuko ditu goiztiarrenak, eta bere ahots gaztearekin lokartuko dira parrandatik datozenak.

- "Euskadi Gaztea"n hasiko zara lanean, ezta?

Urtero *Euskadi Irratia*-n berarixio moduan aritzeko probak itxen ditxuzte eta ni haietara aurkeztu nintzan. Ez ninduten hartu, baina *Euskadi Gaztea*-ko probetara presentatzeko deitxu ziaten, eta beste gazte batzuekin batera aukeratu in ninduten. Oindio ez diate esan zeri buruzko saiua izango dan, baina *Euskadi Gaztea*-ko saio gehixenetan bezela musikia izango da nagusi. Estudiora probak itxera jun naiz eta hasteko ilusio haundixakin nao.


- Noiz entzun ahal izango zaitugu?

Saiua uztailan 17xan, larunbatian, hasiko da. Goizeko 7:00etatik 11:00etara izango da larunbatetan eta igandietan. Uda guztian egongo naiz bertan lanian, irailan erdira arte. Badakat bildur piska bat, ordu horretan ez dakitelako jendia entzuten egongo dan ala ez. Baina uste dot bi entzule mota eukiko ditxutela, goiz jaikitzen dianak, mendira edo lanera juteko, eta gaupasa itxetik datozenak. Orduan, goizeko 7:00etan musika lasaixa ipiniko dot, eta gero, erritmo gehixo dakatenak sartzen hasiko naiz.

- "Zazpiki Irrati"ko esperientziak ateari ireri al dizkizu?

Hitz egiteko orduan errezasuna eman dia, etorrixa badakat. Teknikoki, *Zazpiki* ko ekipua nahiko mugatua da eta *Euskadi Gaztea*-n, berriz, bi ordenadorekin ingo

JON GURRUTXAGA



dot lan. *Zazpiki*-n, batez ere, kasetak eta konpaktuak erabiltzen nitxun. Oin, ordenadorian gauza pila bat sartuta daude, nik kantua aukeraten dot, eta ez dakat konpaktuak edo kasetak jartzen ibili biharrik. Baina *Zazpiki*-n esperientzia hartu dotela ezin dot ukatu, batez ere, hitz jarixuari dagokionian.

- Bakarrik egongo zara estudioan, ezta?

Bai, teknika kontrolau eta berba in, bixak nik in bihar ditxut. Astian probetan ibili naiz eta ez jata hain erreza iruditxu. Hala ere, oin artekuek ikasi badabe, nik ere martxia hartuko dotela pentsatzen dot.

- Urtarriletik aurrera "Radio Euskadi"n arituko omen zara.

Bai, beka bat dakat eta urtariletik ekainera bitxartian kirole-tan egongo naiz. Baina *Euskadi Gaztea*-n ingo dotenakin konparatzen, oso ezberdina izango da. Batian 4 orduko programia itxeko bakarrik egongo naiz estudiantuan sartuta. Bestian, berriz, gauza puntualak ingo ditxut. Gainera, *Radio Euskadi*-n erderaz in bihar dot, eta ni hobeto moldatzen naiz euskeraz.

- Irratiko zein esatari hartuko zenuke eredutzat?

Inoiz ez naiz fijau. *Euskadi Gaztea*-n badaude esatari onak, eta nik beraiek hartu bihar ditxut eredu moduan, ze erritmo berezixa dakate, beste irratia batzuetakuekin konparatzen, hitz egiten denbora gutxio itxen dabe.

- Zure programa diseinatu beharko bazenu, nolakoa izango litzateke?

Oin *Zazpiki*-n itxen doten programian antzerakua. Musikala izango litzake, eta aspaldiko bluesa eta rocka jarriko nitxuzke, normalian irratixan entzuten ez dan musikia. Irrati komertzialetan neretzat musika 'ona' dana falta dala uste dot, musika komertziala da nagusi. Beti kantu berdinak entzuten dia eta aspertu itxen dabe.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak . . . 943 461111
Txanda hartzeko . 943 743354
Planning-a 943 742950
Alkoholiko Anonimoak . 943740385
D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
Gurutze Gorria . . 943 743864
Mendaroko Ospitalea . 943 032800
Odol Emaileak . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . 943 740442
PESA (Eibar) . . 902 10 12 10
Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua . . 943 744366
Udal Kirol Patronatua . 943 744415
Kultura Zerbitzua . . 943 742158
Mendaroko Udala . . 943 756100
Ongizate zerbitzua . . 943741008
Udaletxea 943 741050
Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . . 943 741626
Kiroldegia 943 744415
Kontsumo Bulegoa . . . 943 743088
Liburutegia 943 743525
Musika Eskola 943 742145
Mintxeta 943 744315
Parrokia 943 740842
Postetxea 943 741547
Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza . . 943 740296
Zaharren Biltokia . . . 943 740526

IKASTETXEA

Haur Eskola 943 74 21 41
HHI (EPA) 943 74 08 80
Herri Eskola 943 74 08 79
I.M.H. 943 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre 943 74 02 67
Ezenarro (Meka) . . . 943 74 44 80
Ikastola 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea . . . 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
El Diario Vasco . . . 943 74 40 73
El Correo Español . . 943 74 10 82
Gara 943 10 84 21
Zazpiki Irratia . . . 943 74 34 74

15

osteguna

16:00 HITZALDIA

Gaia: Herri telebistak eta kable telebista
Hizlaria: Iñaki Zabaleta
EHUko irakaslea
Kultur Etxean
Antolatzailea: Topagunea
Euskara Elkarte

10

larunbata

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Babe, El Cerdito en la Ciudad”
Plaza Handian
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba

9

ostirala

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Bichos”
Plaza Handian
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba

11

igandea

18:30 GELATXOREKIN DANTZALDIA

Plaza Handian

16

ostirala

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA

“La sombra del faraon”
Plaza Handian
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba

ZINEA



Zuzendaria: J. Lasseter eta A. Stanton.
Antzezleak: Ordenagailuz egindako marrazki bizidunak.

Bichos

Pelikula honen zuzendaria, Jhon Lasseter, “Toy story” filmearen arduraduna da, oso-osorik ordenagailuz egindako lehen filmearen egilea, alegia. Inurritegi bateko kideak dira pelikula honetako protagonistak. Intsektu maltzur batzuek inurritegia erasoko dute. Flick inurri zorroa bere familia babesteko laguntza bila hasiko da. Bilaketaren ondoren, zirku batean lan egiten duen intsektu koadrila baten laguntza bakarrik aurkituko du.

● **Herri telebisten eta kable telebistaren inguruko hitzaldia ostegunean, hilaren 15ean**

Euskara Elkarte eta Herri al-dizkariaren Topaguneak "Herri telebistak eta kable telebistaren inguruko solasaldia" hitzaldia antolatu du datorren ostegunerako, hilak 15, Kultur Etxean. Hizlaria Iñaki Zabaleta EHUKo irakaslea izango da. Honakoak izango dira landuko dituen gaiak: Kable telebista zer den, nola egin daitekeen zirkuitoa, zein den beharrezko tresneria, kable telebistaren sektorearen garapena munduan eta honen kostua. Kable telebistaren gaia pil-pilean dago. Izan ere, herri telebisten kopurua handiagotzearekin batera, beste hainbat herritan dagoeneko abian den kable telebistaren fenomenoak hurbiltzen ari zaigu. Herriko nahiz bailarako telebista hauek nola sortu, kable telebistarekin izan dezaketen harremana etab. izango dira landuko diren beste gai batzuk. Hitzaldia arratsaldeko 16:00etan hasiko da.

● **Gure Bide Elkartearen sorreraren 40. urteurreneko ospakizun ekitaldiak**

Gure Bide Elkartek 40 urte bete dituela-eta, hainbat ekintza antolatu dituzte. Uztailaren 19an eta 20an Arabar Errioxako ardoaren dastaketa ikastaroa emango dute. Hilaren 21ean, berriz, Kaba dastaketa ikastaroaren txanda izango da. Ikastaroak elkartean bertan izango dira arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Ikastaroan 25 lagunek baino ezingo dute parte hartu. Beraz, interesa duten bazkideek lehenbailehen eman beharko dute izena. Izena ematerakoan 1.500 pta. ordaindu beharko dira. Aipatutako 25 plazak bazkideentzat badira ere, taldea osatzen ez bada, edozein herritarrek izango du ikastaroan parte hartzeko aukera.

● **Gemma Monreal margolari elgoibartarren erakusketa Zarautzen**

Gemma Monreal elgoibartarrak margo erakusketa inauguratuko du uztailaren 17an Zarauzko *Kayua* galerian. Inaugurazio ekitaldia arratsaldeko 18:00etan izango da. Dena dela, margoak uztailaren 15etik aurrera egongo dira ikusgai, eta erakusketa uztailaren 30era arte luzatuko da.



● **'Los Perez de Nochistlan' Mexikoko mariatxiek emanaldia eskainiko dute hilaren 17an**

Mexikotik zuzenean etorritako 'Los Perez de Nochistlan' mariatxi taldeak emanaldia eskainiko du datorren uztailaren 17an. Saioa Herriko Antzokian izango da eta gaueko 22:30an hasiko da. Sarreraren zenbatekoa 1.000 ptakoa da.

● **Helduentzako txangoa Oiartzunera datorren uztailaren 28an**

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak, Gizartekintzaren laguntzaz, Oiartzunera txangoa antolatu du datorren uztailaren 28rako. Goizeko 8:30ean irtengo dira Plaza Handitik eta Oiartzungo Gurutze Berri jatetxean bazkalduko dute. Txangoaren prezioa 3.000 pezetakoa da.

T X A N D A K

FARMAZIAK

	Egunez	Gauzez
10	Bidasolo*	Escala
11	Bidasolo*	Escala
12	Bidasolo	Bidasolo
13	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
14	Anduaga	Anduaga
15	Bidasolo	Bidasolo
16	Zabaleta	Zabaleta

* (eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

11 **igandea** Foteru

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: George Miller.
Antzezleak: Magda Szubanski, James Cronwell eta Mickey Rooney.

Babe el cerdito en la ciudad

Babe txerritxoak baserriko giro lasaia alde batera utziz, eta hiri handiko arriskuei aurre egitea erabaki du. Bidean hainbat komedia pasako ditu, baina baita lagun berri mordoa egin ere: arratoiak, txakurrak, katuak, tximinoak eta pailazo bitxi bat, besteak beste. Bestalde, adin guztietako ikusleentzako ipuin zoragarri honen kolore eta argitasunez beteriko irudiak eskainiko dizkigu.

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

◆ Elgetako enpresa batek kontabilitatea eta frantsesa dakizkien pertsona bat behar du. ☎ 943 78 80 06 (Itziar. Astelehena eta astearte 8:00etatik 15:00etara)

◆ ESKAERA ◆

◆ Uztailean goizez umeak zaintzeko edo antzeko lanen bat egiteko prest gaude. Neska euskaldunak eta gazteak gara. ☎ 943 74 09 49 (Gauzez deitu. Sara)

◆ Klinikak laguntzailea eskaintzen da gaixoak edo edadetuak zaintzeko. ☎ 943 74 04 86.

◆ 32 urtetako neska eskaintzen da umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. ☎ 943 75 51 93.

◆ Sukaldaria eskaintzen da sukaldarako, umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. ☎ 943 74 38 85. Gloria (goizetan deitu)

◆ Esperientziadun emakumea gaixoko zaintzeko prest. ☎ 943 74 04 86

Etxebizitzak

◆ Buhardila bat edo pisu bat alokatuko nuke pertsona bakarrarentzat. ☎ 943 74 05 99 (8:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara)

◆ Apartamentua alokatzen da Alcoceberren. Uztaila, abuztua eta iraila. ☎ 943 74 22 08.

◆ Etxebizitza salgai Errosario kalean. Ganbara eta altzariek. Plazatik gertu. ☎ 943 74 17 95.

◆ Etxea alokatzen dut Zumaian. Uztaila, abuztua eta iraila. ☎ 943 74 13 82

◆ Pisua salgai edo alokairuan Torreviejan (Alicante). ☎ 943 74 24 26 (Domingo Garcia)

◆ Udarako baserria alokatzen da Goizuetan, talde handientzat prestatuta. Aste baterako, hama-bostaldirako, zein hilabeterako. ☎ 943 42 79 27

◆ Pisua alokatuko nuke altzariek. Soldata finkoa. ☎ 943 74 08 09 (Jone)

◆ Laredon apartamentua alokatzen dut uda honetarako. Hondartza heretzean dago. ☎ 943 7952 80/ 656 71 77 45

◆ Etxea alokatzen dut Zumaian. Uztaila eta iraila. ☎ 943 86 05 93 (18:00etatik 21:00etara. Loli)

◆ Apartamentua alokatzen dut Torreviejan. Udan. ☎ 943 74 24 50

Bestelakoak

◆ Irailetik aurrera Elgoibarren pisua konpartitzeko norbait behar dut. ☎ 639 65 17 46.

◆ 250 m2ko lokala alkatzen dit. almazena jartzeko egokia. Ermuaranbide, 14-2. eskuma. Grua dauka. ☎ 943 74 40 54/630 04 99 09

◆ Herri erdian dagoen taberna traspasatzen da atenditu ezin dugulako. ☎ 943 74 26 09 (16:00etatik 19:00etara deitu)

◆ Somierra erregalaten dit. Berria eta egoera onean. 1'80x90. ☎ 943 74 32 01

◆ Katakume siamesak erregalaten ditut. Helbidea: Urasandi kalea 51-3. erdia.

◆ Taberna traspasatzen dit. Ekonomikoa. Errenta baxua. ☎ 943 74 10 02

◆ Logela bat alokatzen da Arregitorren. ☎ 943 74 18 81. Juani (Iluntzean deitu)

◆ Arratoi txakur kumeak oparitzen dira. ☎ 943 75 51 93

◆ Terrenoa eta txabola eskaintzen ditut, ardiak eta ortua jartzeko aproposa. Elgoibartik hurbil. Interesatuek deitu 639 90 76 65 telefonora.

◆ Urrezko pultsera galdu dut Urasanditik Plaza Handira bitartean. Senarra zenaren oroigarria denez, topatu duenari bueltatzea eskertuko nioke. ☎ 943 74 25 83

◆ Ekainaren 22an, 20:00ak aldera King-Kong tabernan Iriondo dendako poltsa bat utzi nuen sandalia batzuekin. Norbaitek aurkitu badu dei dezala mesedez, 943 74 33 18 telefonora.

◆ Pilar ikastetxean 78. urtean amaitu zutenak (65. urtekoak) Bazkaria izango dute irailaren 11n. Joan nahi dutenak deitu telefono honetara: 639 96 07 87 (Jose Mari San Martin). Deitu 20:00etatik aurrera.

◆ Urrezko gurutzeta eta katea galdu ditut. Jaunartze eguneko oparia da. Jokin 99-V-9 dauka idatzita. Norbaitek aurkitu badu dei dezala mesedez 943 74 25 09 telefonora.

Partikularrak

◆ Uztailean Frantseseko klaseak emango dizkidan norbait behar dut. ☎ 943 74 22 37 (Egurdian deitu).

Salerosketak

◆ "Ford escort" autoa salgai. 16V eta 90 zaldikoa. Airbag bikoitza eta ABS-a ditu. SS-AU. Interesatuek deitu 943 74 20 74 telefonora. (20:00etatik aurrera)

◆ Bigarren eskuko gitarra espainola merkea erosiko nuke jotzen ikasteko. ☎ 943 75 60 30

◆ Opel Corsa GSia salgai. ☎ 943 74 34 64 (gauzez deitu. Mikel)

◆ Opel Corsa 1.0 autoa salgai. BI-AG. Egoera onean. ☎ 943 74 36 07

◆ Uztailean 11an izango den Backstreet Boys-en kontzerturako sarrera bat saltzen dit. ☎ 943 74 12 85

◆ Wusner karabana salgai, 5 plaza. Ekipatua. Garajejan gordeta egon da. ☎ 943 74 36 34. Deitu 10:00etatik 12:30etara eta 17:00etatik 20:00etara.

◆ ZZR 600 Kawasaki motoa salgai. Egoera onean. ☎ 630 52 60 52

Agurrak

◆ Zorionak **tia Karmele**. Etxekuak Bartzelona aldiari dabiz baina nik zurekin zelebrauko dot zure eguna Patxo haundi bat. Ira.

◆ Zorionak **Estherri**, uztailean 7an urteak bete zituelako. Ibaian, Leireren eta Estibalizen partez. Ondo pasa eguna zure anaiekin.

◆ Zorionak **Erikari**, hilaren 8an urteak bete zituelako. Ondo pasa Debako hondartzan. Zure gelako neska lagunaren partez.

◆ Zorionak **Ane Agirregomez-kortari**, San Fermin egunean urteak bete zituelako. Ondo pasa, familiaren partez.

◆ Zorionak **Nataliari**, hilaren 6an 27 urte bete zituelako. Familiaren eta bereziki iloba Aritzen partez.

◆ Zorionak **Natalia Barriadari** eta **Jesus Barredari**. Bihar zuekin eta beste gonbidatuekin egun ahaztezina pasatzea espero dugu. Familiaren eta bereziki Aritzen partez.




◆ Zorionak **Itoitzi**, gaur 4 urte bete dituelako. Familiaren eta bereziki anaia Urkoren partez.



◆ Zorionak **Anari**, uztailean 3an 5 urte bete zituelako. Familiaren partez.



◆ Zorionak **amama Karmeleri**, hilaren 6an urteak bete zituelako. Iloba Urtziren eta Andoniren partez, muxu handi bat.



◆ Zorionak **Jonatan Garcari**, hilaren 11n 7 urte bete zituelako. Familiaren partez muxu handi bat.



◆ Zorionak **Mikeli**, urtebete egin duzulako. Familiaren eta lehengusu Borjaren eta Ignacioren partez.



◆ Zorionak **Mikel Tadeori**, hilaren 7an urteak bete zituelako. Ea aurten txalupan arrainen bat harripatzen duzun.



◆ Zorionak **Karlosi** eta **Anari**, larunbatean zuetaz libratuko garelako. Ondo pasa eguna. Familiaren partez.



◆ Zorionak **Loreari**, hilaren 12an 6 urte bete zituelako. Familiaren eta bereziki Aitorren, Mikelen eta Jokinen partez.



◆ Zorionak **Loreri**, atzo 5 urte bete zituelako. Gurasoen, aitxitxamamen, osaba-izeben eta lehengusuen partez.

GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37

AROSZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana,16
☎ 943 74 29 94

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
☎ 943 74 03 96

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94

PROIEKTUGILEAK

JESUS M^a GABILONDO

Ubitarte, 4-5 esk.
☎ 943 74 45 99

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 943 74 17 61
☎ 689 04 92 06

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 608 77 29 32

JUAN CARLOS S.L.

Urasandi, 59-61
☎ 943 74 34 87

ONGI

Urasandi, 8
☎ 943 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 943 74 07 89
☎ 608 14 30 40

ALFONBRAK TAPIZERIAK

LAU

San Frantzisko, 42
☎ 943 74 18 89
☎ 943 74 06 73

PINTURAK

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

BETI ARGÍ

Errosario, 6
☎ 943 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

ASKETA

Osio, 7 DEBA
☎ 629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 29 87
☎ 689 58 47 23

IPINTZA

Trenbide, 25
☎ 630 95 97 58-7
Faxa: 943 74 45 97

udako moda

preziorik

treskoenetan

BEHERAPENAK

ASTIGARRAGA

Kirolak



Errosario, 16-18 · Tel: 943 74 32 68

*Ferpi
Modak*

San Bartolome, 38
Tel: 943 74 08

GARATE

Jantzidenda

San Bartolome, 13
Tel: 943 74 11 29

IRIONDO




KIROLAK

San Frantzisko, 37-54
Tel: 943 74 09 56



San Frantzisko, 43
Tel: 943 74 41 99



San Frantzisko, 34
Tel: 943 74 02 35